**ERREPORTAJEA** ELGOIBARREN BIZI DIREN GALIZIARRAK • **GEHIGARRIA** KILIBARREN BERBETAN BERNABE MUJIKA SARIA JASO DUEN JOSE AGUSTIN OLASOLO "LAUKO"

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko urriaren 26a/IX. urtea/381. zkia



# Elgoibartik Galiziara begira

# BOSKO REMT

GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIRUA

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI eta PREST1







GARBIKETA
40Opta.

GARBIKETA LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
50Opta.

GARBIKETA BEREZIA
70Opta.

HORRETAZ GA1N, TAILER ZERBITZUA ERE ZURE ESKU DUGUI.
Sigmako industrialdea, 7 ota 8 pabilioiak.

2 103 287



# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA

**San Frantzisko, 43 -1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

**1 0:00etatik-1 2:30era**
**1 5:00etatik-20:30era**



**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR



## Armategiak, Arzalluz eta erreferenduma

Irlandako bake prozesua indartzeko helburuarekin, IRAk armategiaren zati bat entregatu du, oinarrizko baldintzak betez gero borroka armatua uzteko prest dagoela erakutsiz. Emandako urratsa zaila bezain garrantzitsua da:.urtetan zehar hamaika negoziazio mahai izerdiz busti .dituzten aldeen lanaren emaitza. Erabakia hartzeko britaniar gobernuak ez du bozketarik egin behar izan, bai baitaki Ipar Irlandarentzat oinarrizko baldintza horiek gauzatzen diren heinean, talde armatuaren izateko arrazoiak berez desagertzen joango direla.

Euskal Herrian ez dago ez bake pr esurik, ez negoziazio mahairik... eta Euskal Herriari nolako etorkizuna nahi duen erabakitzeko eskubidea onartzen ez zaion bitartean, balizko erreferendumei buruz hitz egitea antzua da, Xabier Arzalluzek badaki bake prozesua gauzatzeko ezinbesteko baldintza, autodeterminazio eskubidea onartzean datzala. Baita, euskaldunak batzen ez garen bitartean, prozesu horretara iristea ezinezkoa dela. Hobe zukeen, hitzak arreta desbideratzeko prentsaurreko deigarrietan xahutu beharrean, euskaidunon arteko batasuna lortzen erabiliko balitu.

en (1) 77'' O O N

Lore Perez de Albeniz



## Eskubideen inguruan

BARRENek ematen didan aukera eskertuz eta irakurleak agurtuz, txoko hau aprobetxatu nahi dut nire iritziak botatzeko. Gaia Iibrea denez, une politikoa astindu nahi dut. Eskubideak gora, eskubideak behera, egunotan hainbat politikori entzuten zaizkien berben hausnarketa egitea merezi duela uste dut. Herrien eskubideak onartuak daude mundu mailako erakundeetan: Nazio Batuen adierazpen eta gutunetan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean... Baina, interes politikoen arabera, aldarrikapen horiek alde batera lagatzen dira. Gure kasuan, Euskal Herria herri bat dela, nazio bat dela, ukaezina da, Bere historiak, kulturak, hizkuntzak, folldoreak... hori aitortzen digute behin eta berriz. Orduan, zergatik ez onartu eskubide hoiek Euskal Herriari? Bi estatuen artean gaude sakabanaturik, eta hiru administrazio desberdinetan, baina horrek ez digu arrazoirik kentzen.

Espainiar zein frantziar estatuek daramaten ukazio antidemokratikoan datza gaur egun bizi dugun gatazkaren muina. Ukazioa altxatzen ez den bitartean askatasunik ez da egongo gure artean. Eskubideak ez dira neurtzen gutxiengoen eta gehiengoen arabera; pertsona bati, herri bati dagokio. Eskubide politikoen gain hizkuntza eskubideak ere hor daude. Astean irakurri dugu nola INEk (Instituto Nacional de Estadistica) bi enpresa zigortu dituen inkesta batzuk euskaraz eskatzeagatik.

Hemen dago arazoaren muina. Orain dela 25 urte martxan jarri zen operazio politikoa berriro errepikatzea (hiru probintzien Autonomia Estatutua) etorkizun politiko gabeko bidea da, euskaldun guztion eskubideak izozkailuan aparkaturik uzten dituelako.

Azaroak 17an, Bilbon, aukera izango dugu autodeterminazioaren alde kaleratzeko. Aprobetxa dezagun.

**Pello Mendizabal**

-11~111.9

Kexak ..........................................................................

motz motz ........................................ 10

gehigarria ......................................

kiROlAk ............................................................. 20

aGenda .......................................... 24

*Elgoibarren bizi diren etorkinetatik, galiziorrek osatzen dute multzorik jendetsuena. Zenbat diren jakiteko datu zehatzik ez badago ere, ehundoka dira Goliziotik etorritakook eta hemen jaio ziren hoien ondorengoak. Galiziako hauteskunde autonornikoak egin berri dira eta Manuel Fragak jarraituko du Xuntako presidenfe izaten, PP aiderdiak gehiengo osoa eskuratu baiht laugarren oldiz jarraion. Gai hau eta galiziarrekin zerikusia duten beste batzuk aztertu ditugu, ikuspuntu ezberdinak kontutan hartuz.*

# GA ZIA

## Galiziar baten semea

Noel Rodriguezek 25 urte ditu eta Elgoibarren bizi da. Euskal Herrian jaio zen, baina galiziar etorkinen semea da, hirugarren belaunaldikoa, hain zuzen ere.



"Galiziar kulturatik gehien interesatzen zaidana gastronomia da"

Noel Rodriguez

**Euskaldutzat ala Gallegotzat duzu zure burua?**

Ez bata ez bestea, ezta espainiarra edo munduko biztanlea ere. Hemen jaio naiz hala tokatu zaidalako, eta kitto. Ez dut inongo sentimendu nazionalistarik.

**Zein ezberdintasun aurkitu dituzu Euskal Herriaren eta Galiziaren artean?**

Gutxienez urtean behin joaten naiz eta ez dut jendearen pentsatzeko eran ezberdintasunik antzeman. Baldin badaude, nik ez ditut ikusi. Zerbait aipatzearren, terrorismoaren arazoari buruz hitz egitean, aurreiritzi asko dituzte. Hala ere, ez dut inoiz arazorik eduki Euskal Herrikoa izateagatik.

**Ba al dakizu galegoz hitz egiten?**

Txikia naizenetik aitak galegoz hitz egiten du etxean eta ulertu primeran egiten dut. Hitz egitea gehiago kostatzen zait. Euskararekin berdin gertatzen zait. Eskolan "b" ereduan ibili nintzen eta dena ulertzen dut, baina sekula ez dut euskaraz egin.

**Galiziar tradizioak eta ohiturak ikasi eta mantentzeko ahaleginik egiten al duzu?**

Galiziar kulturatik gehien interesatzen zaidana gastronomia da. Folklorea, mulleiralc eta antzerakoak ez ditut horrenbeste jarraitzen.

**Jarraitu al dituzu Galiziako hauteskundeak?**

Pare bat mitin ikusi ditut telebistan, baina nahiko gainetik. Han bizi ez naizenez, gertatzen denak ez du nigan eraginik.

**Zer iritzi duzu Manuel Fragaz?**

Frankismo garaiko hondakin bat dela iruditzen zait. Egia da Galiziak hobera egin duela bera agintean egon den azken 10 urteotan, baina ez da Fragari esker izan.

## Elgoibartar bat Galizian

Ourenseko Allariz herrian aurkitu dueu Miren Bergara, elgoibartarra. Bere senarra. Alfonso Basallo. Allarizkoa da eta apiriletik bertan daude etxean egiten ari diren lanak direla-eta. Aukera aprobetxatuz, hauteskundeetan gertatu dena kontatzeko korrespontsal lanak egin dizkigu. Galizia eta galiziarrak euskaidun baten begietatik ikusiko ditugu.

**Galizian bizitzen geratzeko asmoa al duzue?**

Ez. Senarra 53 urtian bizi izan da Elgoibarren eta elgoibartartzat daka bere burua. Hona noizian behin etortzen jarraitzeko asmua dakagu.

"Galiziako na alde Rxer aldaketar okertuko dk

Mlre

**Hauteskundeak bertatik biziizeko aukera izan duzu. Nolakoak izan dira?**

Telebistan eman dabe gerrarik haundixena. Ostantzian, lasaixak izan dia. Euskal Herrikuekin konparauta, ziharo desberdinak izan dia, herri mailan askoz oihartzun txikixaua euki dabe.

**Argi al zegoen nork irabaziko zuen?**

Bai, inork ez zakan Fragak irabaziko zaban dudarik. BNG-kuek eta beste partiduek ere bazakien Fragak irabaziko zabala,

**Fragak jende nagusiaren artean du botu emaile kopuru handiena, ezta?**

Bai, jende nagusixak eskuinaren alde itxen dau. Jendaurrian gauza bat esan arren, gero bestera jokatzen dabe. Lehenguari eutsi nahi diobe. Ez dabe aldaketarik nahi, gauzak okertuko dian

# Elgoibartik begiratuta



"gusixek eskinnan
dabe. Ez dute
k nabi, gauzak
in beldur haidia"

**Bergara**

bildur dia-eta. Oso zaila da mentalidade hau aldatzia. Allarizen, adibidez, BNG da nagusi eta azken urtietan asko ein dau herrixagatxik.

**Nolakoak dira galiziarrak?**

Oso jende jatorra dia. Bestalde, Galizia Euskal Herrixakin konparatuz atzerauta dauala iruditzen jata, nahiz eta azken 40 urtietan asko hobetu dan egoeria. Soldatak bajuauak dia eta bizimodua Euskal Herrixan bezain garestixa.

**Galiziar bat Euskadin edo euskaldun bat Galizian, nor moldatzen da hobeto?**

Gaileguek "morrifia" asko sentitzen dabe, baina Euskal Herrixan integratzeko arazorik ez dabela euki uste dot. Euskaldunoi Galiziara ohitzia gehixao kostatzen jaku. Hemen hango girua eta bizitxasuna falta jakue. Allarizen, adibidez, zaila da ilundu eta gero jendia kalian topatzia. Bertako neska bat Erinuan eon berri da eta harritxuta gerau zan gazte giruakin. Euskal Herrixa ez dala telebistan erakusten duten modukua konturatzeko balio izan zaban.

## Galiziar bat Elgoibarren

Luis Rodriguez elgoibarren bizi den galiziarra da. 1947. urtean jaio zen Curtis herrian (A Cordia) eta 1964. urteaz geroztik Elgoibarren bizi da. Gaur egun Galiza Etxeko presidentea da.

**Nola heldu zinen Elgoibarrera?**

Hemen bizi zen osaba batek gonbidatuta etorri nintzen 1964. urteko San Juan jaiak pasatzera. Osabak bazekien hemen geratuko nintzela. Garai hartan ohikoa zen Galizian zeuden senitartekoak honuntza ekartzea.

**Integratzeko arazorik izan al zenuen?**

Ez dut inoiz arazorik izan, hasieratik oso ondo hartu ninduten.

**Euskalduna ala galiziarra sentitzen zara?**

Gailegoa naiz, baina nire bigarren aberria Euskal Herria da.

**Nola ikusten duzu Elgoibarko galiziar komunitatea?**

Jende alaia eta animatua da. Galiza Etxean antolatzen ditugun gauza guztietan laguntzeko prest azaldu dira beti. Berdin gertatzen da Elgoibarko herriarekin eta Udalarekin ere.



"Elgoibarko herria a. Udalla oso ondo portatu dira gurekin"

**Luis Rodriguez**

**Jaioterriko tradizio eta ohiturak mantentzen saiatzen al zara?**

Bai, Galiza Etxea berez Kultur Etxe gisa erabiltzeko sortu zen. Magosto jaia, Dia Das Letras Galegas... dira horren erakusgarri. Gaur egun, ordea, elkarte gastronomiko moduan funtzionatzen du.

**Hauteskundeak jarraitu al dituzu?**

Ez, guztiz apolitikoa naiz eta Galiziako egunkari nagusi guztiak jasotzen ditugun arren, Elkartetik pasa diren bazkideek, orokorrean, ez diete jaramon handirik egin hauteskundeei.

**Zertan datza Manuel Fragaren arrakastak?**

PP eta Fraga hemengo PNVren arrakastarekin konparatzen ditut. Fraga PPkoa da, baina nazionalismora jotzen duela iruditzen zait. Horrela leku eta boto emaile kopuru zabalagoetara iristen da.

# i n kesta

2001-X-26

## Domusantuko zubia bidaiatzeko aprobetxatuko du jendeak

# EEBBETAKO ATENTATUEN OSTEAN, ABIOIA HARTZEAK BELDURRA EMATEN AL DIZU?



### PURI ALVAREZ

**39 urte, etxekoandrea**

Bai, abioia hartzeak beldurra emango lidake. Hala ere, uste dut Espainian badagoela ezagutzeko nahikoa leku Estatu Batuak, Tailandia edo Kuba bezalako toki urrunetara joan gabe.

### NEREA AZPITARTE

**24 urte, bulegaria**

Bai, piska bat bai. Orain dagoen mobidarekin abioi batean ez nintzateke lasai joango. Nahiago nuke beste transporteren bat hartzea. Aurrez eskatutako bidaia balitz, bertan behera utziko nuke.





### ANDRES REVERT

**57 urte, mekanikoa**

Bai, hegazkinez bidaiatutakoa naiz, baina gertatu den honekin zalantzak izango nituzke abioia hartu edo ez erabakitzeko. Han gertatu den bezala, hemen ere gerta liteke.

### OSCAR CORDON

**16 urte, ikaslea**

Ez, bat ere ez, arazorik gabe joango nintzateke abioian. Transporterik azkarrena da eta errespeto piska bat eman arren, hegazkina hartuko nuke bidaiatzeko.





### J. ANTONIO ZUBIAURRE

**45 urte, montadorea**

Ez, ez diot peligrorik ikusten. Lehen ere ibilitxakua naiz eta lan asuntuakin edo bestela jun biharra eukiko baneu, jungo nintzake; ez neuke biajia kantzelauko.

### CONCHI IRIONDO

**47 urte, administraria**

Bidaiatzeko aukera izanez gero, joango nintzateke, oso gustura gainera. Denok daukagu beldur piska bat jaso dugun informazioa dela-eta. Benetan gertatzen denetik dakigunera izugarrizko aldea dago-eta.




IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10 OEKO BEHERAPENA



944:4 eryd uttkvta yeetteek

6 catette4ia•

AUT

Tel: 943 74 10 11

# gig Osasune adituak

## MASAJ ISTA

**Victoria Iraegi**

PM Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

.............................. Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

......................... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

................................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Beiardenda (Osasun naturalaren zure zentroa Figobarren. Informa zaltez)

......................... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

................................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optiko-optometrista)

....................... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

................................ Egunero: 9:30- 13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontakto logia, audiometria)

......................... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

................................ Egunero: 9:30- 13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

....................... San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

................................ Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

.................................... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

.............................. Egunero: 10:00- 13:30 / 15:00-19:30

**triaki Rivero**

....................... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

............................ Ostegunak: 9:00- 12:00 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

## OIN Ausinnum



Oinek izugarrizko eragina dute gorputzeko gainontzeko ataletan. Izan ere, oinak dira orkatilen, belaunen, mokorraren edo bizkarrezurraren oinarri. Beraz, hauetako artikulazioren batek huts eginez gero, oinetan egon liteke arrazoia. Bada podologoarengana joan eta sendagileak bizkarreko mina tibien altuera desberdintasunak eragindakoa dela esan dionik.

### "Zapata moldatu behar da oinera, ez oina zapatara"

**Oinetako arazoei aurre egiteko irtenbideak**

**Plantilak:** Pertsona bakoitzak oinetakoei egokitutako plantila pertsonalak izan behar lituzke. Oinak zirkulazio bonba funtzioa betetzen du, pauso bakoitzean odola bultzatuz.

**Higienea:** Adinaren, norberaren eginbeharren edo egoeraren arabera, oinak zaintzeko beste metodo batzuk erabiliko ditugu.

**Oinarrizko erregelak:**

**1.- Oinetako erosoak:** Material onekoak. Zapata moldatu behar da oinera, ez oina zapatara.

**2.- Azala egunero hidratatu**

**3.- Oinetako hatzazkalak zuzen moztu**

**4.-Podologoari bisita:** Oinen inguruko edozein zalantza argitzeko edo galderak egiteko podologoarengana joan, gaitzak gehiagora jo baino lehen.

Idoia Arrillaga Podologoa

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 **41** 12ra

# 8 lagun etxez etxe ibiliko dira populazio zentsua berritzeko galdeketak egiten

## Inkestak internet bidez erantzuteko aukera izango da aurten

Joan den astelehenean, hilaren 22an, hasi eta Gabonak bitartean populazio zentsua berritzeko inkestak egingo dituzte herriko etxeetan eta lokaletan. Hamar urtean behin Iegearen aginduz berrizten dira zentsuak, herritarren ezaugarri sozialak eta demografikoak ezagutzeko.

Elgoibarren 8 zentsu agentek herriko etxe eta lokal guztietan utziko dituzte galdeketak; etxebizitzaren, bizilagunen eta euskararen ezagutzaren inguruko galderekin. Herritarrei lana errazteko, aurrez jasotako erroldako datuak galdeketan bertan agertuko dira idatzita, eta aldaketarik balego, norberak ipini ahal izango ditu paperean bertan, udaletxera joan gabe. Zentsuen helburuak, besteak beste, bizilagunen kopurua jakitea, familien eta etxeen egitura eta ezaugarriak ezagutzea eta lanaren zein garraioen inguruko datuak jasotzea dira. Datu hauen arabera, planifikatuko dira osasun, hezkuntza, ingurugiro eta populazio politikak.



*Goian, ezkerretik eskumara: Ainhoa Diez, Mireia Et.reberria, Kristina Bergua, Beatriz Revuelta (taldeko arduraduna) eta Amaia Ovejero*

### Erantzunak internetez

Aurtengo berrikuntza zentsuko galderak internet bidez betetzeko aukera eskaintzea da. Horretarako, oinarriak eta klabea agenteak etxera ekarriko digun inkestan agertuko dira. Galderak internet bidez erantzuten dituztenentzat sariren bat egongo dela esan digute Estatistika Institutu Nazionalean. Beraz, etxera bisitan zentsu agenteren bat etorriz gero, galdeketa erantzutea eskertuko dizuete. Estatistika Institutu Nazionalekoek aurrez jakinarazi nahi dute datuak sekretupean edukiko dituztela.

# Udaleko 2002rako ordenantza fiskalak %4,5 igoko dira

## Bestalde, Foru Aldunditik 45.567.997 pezeta gehiago jasoko ditu Udalak

Joan den ostiralean, hilaren 19an, 2002rako ordenantza fiskalak onartu ziren , eta erabaki horren arabera %4,5eko igoera izango dute zergek. **EAJ-PNVk,** EAk eta PPk baiezkoa eman zioten igoerari. Batasunak ezezkoa eman zuen eta **PSE-EEk** igoera batzuk baino ez zituen onartu.

EAJ-PNVk eta EAk osatutako Gobernu Batzordearen esanetan, IPCaren igoera kopuru horretatik hurbil egongo denez, %4,5ean estimatu dute zergen igoera ere. Beraien esanetan, bizilagun bakoitzak 233 pezeta gehiago besterik ez ditu ordaindu beharko". PSE-EEk aurreikusitako IPCaren igoeraren mailan edo azpitik daudenak onartu zituen, ez, ordea, %4tik gorakoak. Batasunak prentsaurrean adierazitakoaren arabera ,ezezkoa eman zion ordenantza fiskalen igoerari. Herritarren partehartzerik eza eta gehiegizko igoera izan ziren emandako arrazoiak.




*EAJ-PNV, EA eta PPren baiezko botoekin onartu ziren 2002rako zergak.*

### Dirua Foru Aldunditik

Bestalde, joan den astean jakin genuen Elgoibarko Udalak datorren urtean, 710.951.741 pezeta jasoko dituela Gipuzkoako Foru Aldunditik, 2001ean baino %6,85 gehiago. 665.383.744 pezeta jaso zituen aurrekoan eta oraingoan 45.567.9997 pezeta gehiago izango dira. Diruaren banaketa egiteko biztanle kopurua hartu dute kontutan eta Elgoibar 17. lekuan dago Gipuzkoan.

## Azaroaren 14an kaleratuko dute Mikel Alberdi preso elgoibartarra



**MIKEL ALBERDI**
17 urte kartzelan

Mikel Alberdi preso elgoibartarra kondena osoa bete ostean, azaroaren 14an aterako da kartzelatik. Kartzelara joateko autobusa aterako da E1goibartik, eta arratsaldeko 19:30ean Alberdiri ongi-etorria egingo zaio Foruen Plazan. Azaroaren 27an beteko dira 17 urte 3 elgoibartar preso sartu zituztenetik, eta kondenaren 3/4 bete dituztenez, kalean behar lukete legearen arabera. Bestalde, herriko 4 preso politikoak sakabanatuta daude Espainiako kartzeletan. Hori dela-eta "Euskal presoak Euskal Herrira" plataformak sinadura bilketa egingo du herrian euskal presoen herriratzea eskatzeko eta sakabanaketaren aurka protestatzeko.

## Parrokiako Misio Taldeak 8 josteko makina bidali ditu Afrikara

Parrokiako Misio Taldeak Afrikara 8 josteko makina bidali ditu, Angolara 4 eta Benin Errepublikara, beste 4. Makina hauek misiolariek lurralde horietan zuzentzen dituzten emakumeen sustapenerako edo promoziorako zentroetan erabiliko dira. Misio Taldekoek guztiei eskerrak eman nahi dizkiete horrelako ekintzak aunera eramaten lagundu dutelako. Batez ere Estarta y Ecenarro enpresari eta bereziki, Alberto Ecenarrori, gestio guztiak berak egin baititu.

## Ordu aldaketa egingo da domeka goizaldean

Domekan, hilaren 28an, ordu aldaketa egin beharko dugu. Goizaldeko 3:00etan erlojuak 2:00etara atzeratuko ditugu. Beraz, lotarako edo parrandarako ordubete gehiago izango da. Ordu aldaketaren helburua energia aurreztea da. Horrela, eguzkiaren argia hobeto aprobetxa baitezakegu.

# Elgoibarko auzoen izenak aldatuko dituzte

### Santuen izenez gain, Euskaltzaindiak proposatutakoak jarriko dizkiete herriko 5 auzori



Elgoibarko bailarek hemendik aurrera ohiko izenaz gain, Euskaltzaindiak proposatutakoa izango dute. Euskal Herrian arrunta omen da santu izenek jatorrizko auzo izenak ordezkatzea. Honela, leku izena desagertzera edo etxeren batera mugatzera heldu daiteke. Elgoibarko auzo izenetan ere gauza bera gertatu da euskararen baztertzearen ondorioz. Euskaltzaindiaren ustez, ez da bidezkoa euskararen zapalkuntzaren ondorioz sortutako egoerak onartzea, eta jatorrizko izenak berreskuratzea gomendatzen du. Baina, jatorrizko izenak oso ezagunak ez direnez, santu izenak komatxo artean gordeko dira.

**AUZOEN IZEN ALDAKETAK**

| LEHEN | ORAIN |
|---|---|
| San Migel | Aiastia |
| Alzola | Altzola |
| San Roke | Azkue |
| San Pedro | Idotorbe |
| San Lorenzo | Ermuaran edo Sallobente |

**Izen historikoak**

Idotorbe (San Pedro) auzoaren aipamenik zaharrena 1442koa da, eta Vaticanoko artxibategian dago. 1946an, berriz, Azkue eta Aiastiarekin batera Juan San Martin euskaltzainak Elgoibarko auzo izenei buruzko liburu batean aipatzen du. Sallobenteren izena latinetik hartutakoa da, eta Bizkaiko hainbat herritan agertzen da.

# ESKOLARTEKO KIROLAK

Urriak 27, 2. Jardunaldia

**SASKIBALOIA, Herri Eskolan**

**Benjaminak**

**9:00** Ikastola **D-** Herri Eskola **A**

**9:45** Pilar B- Pilar **D**

**10:15** Ikastola **B-** Mendaro **A**

**11:15** Pilar C Herri Eskola **B**

**12:00** Ikastola C- Ikastola **A**

**FUTBOL 7, Mintxetan**

**Alebin mutilak**

**10:00** Herri Eskola **A-** Ikastola C

10:00 Pilar **B-** Ikastola **B**

**11:00** Pilar **A-** Ikastola **A**

**12:00** Ikastola **D-** Herri Eskola **B**

**Alebin neskak**

**11:00** Pilar **B-** Ikastola **A**

**12:00** Ikastola **B-** Pilar **A**

**ESKUBALOIA, ikastolan**

**Infantil mutilak**

**10:15** Ikastola C- Pilar **A**

**11:30** Ikastola **B-** Insti **A**

**12:00** Ikastola **A-** Insti **B**

**Infantil neskak**

**9:00** Pilar **B-** Insti **A**

**9:45** Pilar **A-** Ikastola **B**





## Kirola eta Jolasak izan ziren San Biator Eguneko protagonistak Pilar Ikastemean

Pasa den ostiralean, hilaren 19an, San Biator Eguna ospatu zuten Pilar lkastetxekoek. Goizean goiz ekin zioten ume jolasekin eta irakasleek gozokiak ere banatu zizkieten ikasleei. Jolasen ostean, astean zehar jokatutako pilota eta futbol txapelketen finalak ikusi ahal izan zituzten ikasleek eta ondoren, txapeldun eta txapeldun-orde guztiei sariak banatu zizkieten, Ez zen txalorik eta oihurik falta izan irabazleak saria jasotzera irten zirenean eta bazen saria jasotzeko urduri zegoenik ere. Sari banaketa amaitu bezain pronto sakabanatu ziren ikasleak, beraientzat hor amaitu baitzen eguna. Arratsaldean jai egin zuten San Biatorren omenez.

atotitotylw V. ebbp.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Cordon,Vilarchao, c.b.

DEKORAZ10.4

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INPUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTUIAZIOA, PINTURA OROKORRA,

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

HERRI-GAIN

ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4

943 74 30 40 ELGOIBAR

Ki

BaRRen

2001 ko uffiaren 26a/IX. urtea/78 z

## Debabarreneko ume ugari bildu zen Mendaroko EKO-festan

### Debegesak antolatutako sentsibilizazio kanpaina da



Debabarrenako ingurugiroaren sentsibilizazio kanpainaren barruan, Debeges a elkarteak EKO-festa antolatu zuen pasa den larunbaterako (hilak 20). Eguraldiak asko lagundu ez zuen arren, giro bikaina izan zen, eta eskualde osoko umeak bildu ziren bertan. Gure ingurunea eta izadia hobeto ezagutzeaz gain, ekitaldi desberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten. Zuhaitzak ezagutu, landareak landatu, eta lurrinak egiten ere ikasi zuten. Lan egiteaz gain, jolasteko aukera ere izan zuten Mendarora gerturatu ziren haurrek. Honela, saskibaloi eta futbolin puzgarri erraldoietan salto egin gabe ez zen inor etxeratu. Zaku lasterketa, artaburu biltzea, lapiko apurtzea eta koilararekin arraultzak eramateko lasterketa ere izan ziren. Honekin guztiarekin batera, "Ustekabe" fanfarre ak Mendaroko enparantza dantzan jarri zuen.

## Jesus Mari Juaristik 25.000 pezetako saria jaso du leiho eta balkoiak lorez apaintzeagatik



Jesus Marik beti apaindu izan ditu bere etxeko leiho eta balkoiak, baina oraingoan, 25.000 pezeta jaso ditu, eta berak esan digunez, ez zuen saria irabazterik espero. Udalak 1.500.000 pezetatako dirulaguntza eskaini zuen herriko leiho eta balkoiak lorez apaintzeagatik, eta Jesus Mari Juaristik lehiaketan parte hartzea erabaki zuen. Honela, Udalak banatu zituen lore batzuk hartu, eta berak bere kabuz Iortutako beste hainbat lorekin, emaztea eta bien artean ekin zioten lanari. Jesus Marik esan digunez, emaztearenganclik datorkio afizioa. Emazteari loreak izugarri gustatzen zaizkio, eta bera ere afizionatu egin da. Denboraz larri ibiltzen dela ere aipatu digu, baina hurrengo urtean berriro ere etxeko leiho eta balkoiak apainduko dituela adierazi digu.

**KilisaRRen** **Kolaboratzailea:** Ainhoa Andonegi.
Mendaroko Udalaren dirulagunlzarekin argitaratua

## Bihar, larunbata, itxiko da "Euskal Herria eta Dinosauruak" erakusketa

"Euskal Herria eta Dinosauruak" erakus keta zientifikoa ikusteko azken eguna bihar izango da. Aranzadi Zientzi Elkarte ak antolatuta, dinosauruak gure planetan nagusi ziren garaiko xehetasun guztiak izan ditugu ikusgai, modu didaktiko bate an, eta 120 milioi urte atzera bidaia egite ko aukera eskaini digu. Arduradunek esan digutenez, `lende ugari gerturatu da era kusketa ikustera, eta asko gustatu zaie" Esperientzia positiboa izan dela adierazi digute, eta aurrerantzean, tankera honeta ko beste hainbat ekitaldi antolatzen saia tuko omen dira.

## Bideo konferentziak egiteko kamarak eskuratzeko laguntzak

Mendaroko Udala Mendaro Internet proiektua aurrera eramaten ari da eta ho nen barnean bideokonferentzia bidez ko munikatzeko aukera dago. Baliabide ho nek, telefono deiak egitean, komunikazio horretan parte hartzen duten komunika tzaileak elkar ikusteko aukera ematen du ordenagailuko pantailaren bidez. Dei hauek aurrera eraman ahal izateko, bideokonferentzietarako kamara bat behar da, eta Mendaroko Udalak 20.000 pezeta bi tarteko dirulaguntzak emango ditu.

## Mendarotar askok "Euskaltel" ipini du etxean

Azkenaldi honetan, Mendaroko jende as kok "Telefonica"-rekin zeukan kontratua hautsi, eta "Euskaltel" enpresaren telefo noa ipini du. Honek zenbait arazo sortu ditu. lzan ere, telefono zenbakia aldatu behar izan dtite, eta "Euskaltel"-ek ez dauka oraindik telefono zenbakien gida rik. Hortaz, "Euskaltel"-ek informazio telefono bat jarri du guztion esku, eta ber tara deituz edozein telefono zenbaki lortu ahal izango da: 900 840 065

# etorkizunean pentsatuta egindak

## Urriaren hasieran egin zuten aldaketa, eta dagoeneko dena martxan dago Udaletxe berrian

Mendaro herri independiente gisa eratu zen arte, bi auzotan banatuta zegoen. Egoera honek arazoak ekarri zituen Mendaro herri bezala eratu zenean, eta herria udaletxe gabe gelditu zen. Makina bat arazo gainditu ostean, badirudi Mendarok lortu duela, azkenean, bere tarnainako udaletxea. Honetaz gain, balio sinboliko garrantzitsu bat ere badauka Udaletxe berriak. Herriko enparantzan egin diote tokia eraikuntza berriari. Eraikuntza handia eta modernoa izanik, Mendaroko etorkizunaren ispilua dela esan daiteke.



**UDALETXEAREN BANAKETA**

**SOLAIRUA:**
Liburutegia
Udalbatza-aretoa

**2. SOLAIRUA:**
Alkatetza
Idazkaritza
Bilera gela
Hirigintza
Administrazio saila

**3. SOLAIRUA:**
Arno aretoa
Otaerre aretoa
Etun aretoa
Gizarte saila
KuItura eta euskara saila

### LEHENENGO UDALETXEA 1983an

1983. urtean ezagutu zuen Mendarok bere lehenengo udaletxea. Mendarozabaleko lokal baten beheko aldean kokatu zuten, eta halamoduz bederatzi urte pasatu zituen bertan. 1992. urtean, frontoiaren atzealdeko lokalera aldatu zuten, eta bertan egon da gaur arte. Herria handitzen ari da, eta udaletxe zaharra txiki gelditu zaie. Txomin Zulaika Alkateak esan digunez, ez zeukaten lekurik eta dena pilatuta zegoen: "Udaletxe berri baten premia geneukan, eta azkenean lortu dugu.

Eraikuntza Roberto Gareia eta Ana Aizpiri arkitektuek diseinatu zuten. Kanpoaldeko estruktura oso modemoa da, batzuentzat modemoegia akaso Mendaro bezalako herri batentzat, baina Zulaikak esaten duen moduan, "herriaren etorkizunari begiratu behar zaio". Eraikuntza handia da. Alkateak esan digunez, igarri duten aldaketarik handiena tamainarena izan da. "Udaletxe zaharrean ez geneukan artxiborako lekurik, eta orain eraikuntzaren azpian, hau da, lurpean egingo dute artxibategia. Bestalde, liburutegia ere bertan jarri dute. Aurreico liburutegia erabat zahartuta zegoen, eta ez zegoen bertara iristeko erraztasunik". Zulaikak esan digun moduan, eskaileretatik igotzerik ez duenak, igogailua erabil dezake. Bere hitzetan, "aldaketa guztiak positiboak izan dira".

Barneko aldeak biribiltasunerako joera azaltzen du. Kolore biziz margotuta dago, eta teilatuan jarri dioten luzeroari esker, argitasun ugari sartzen da.

Kalean, hala ere, badira udaletxea handiegia dela esaten dutenak. Txomin Zulaikak begiak ireki eta etorki-



**nEraikuntzaren azpian, lurpean, egingo dute artxibategia"**

**Txomin Zulaika.Mendaroko Alkatea.**

# ullaletna

# KALE I\ <ESTA

## Zer iruditzen zaizu udaletxe berria?



**Lurdes Larrañaga**
**37 urte, langilea**
Oso ondo dagoela iruditzen zait. Beti udaletxe zaharra eta txikia eduki izan dugu, eta aldaketa ona izan da. Oso polita dago, eta herriari itxura berria ematen dio.

**Karmen Fundazuri**
**42 urte, etxekoandrea**
Oso polita da. Barrutik ere ikusi dut, eta asko gustatu zait. Toki handia dauka, eta espazioak oso ondo aprobetxatuta daude. Mendaron behar genuen horrelako zerbait.





**Migel Angel Urkiza**
**39 urte, espezialista**
Kanpoko aldetik modernoegia da. Hemengo etxebizitzen antzerako edifizio bat egin beharko lukete. Hala ere, barnekaldetik oso ondo dago, polita eta handia da-eta.

**Javi Rubio**
**36 urte, langilea**
Oso ondo dago, baina handiegia dela iruditzen zait. Aldaketa handia izan da. Hala ere, gustatzen zait. Barrutik ez dut apenas ikusi, baina itxura ona dauka, eta sarrera oso polita da.





**Luis Salegi**
**39 urte, irakaslea**
Edifizio ederra da. Herriaren etorkizuna ikusita, merezitakoa. Barrualdean toki handia du, eta oso ondo jarrita dago. Udaletxearen praktikotasuna kontutan hartuta, ondo dago.

**Antonia Cardenas**
**59 urte, etxekoandrea**
Enparantzan zegoen zuloa oso era politean bete dute, edifizio egokia egin dutela iruditzen zait. Barnealdea ez dut ikusi, baina oso ondo dagoela esan didate.





zunari begiratzeko eskatzen die: "Mendaro hazten ari da, eta etorkizunean udaletxe hau behar-beharrezkoa izango dugu".

## NORTASUNA HERRIARI

Urtebete pasa iraun dute obrek, eta oraindik ez dago guztiz bukatuta. Gauza asko oraindik behin-behinekoak dira. Kultur Etxea, esaterako. Printzipioz, bertako areto bat erabiliko dute erakusketak egiteko, baina aurrerantzean mojen kapilan eza.rriko dute Kultur Etxea. Denboraren poderioz, Mendaro herri garrantzitsua bilakatu da. Gero eta jende gehiago bizi da bertan, eta zalantzarik gabe hazteko joera hartu du herriak. udaletxe berriak nortasuna emango dio. Herriko enparantzan aginte postua izango da berea, eta inguruko eraikuntzak bere esanetara makurtuko dira. Lan handia eta inbertsio garrantzitsua izan da udaletxe berria eraikitzea, baina aldi berean, beharrezkoa. Mendarok lortu du aspaldian zeukan ametsa egi bihurtzea.



# S77et7atu zaila77a



ilabete honetako erretratu zaharra **Pedro Iriondok** eta **Kontxita Urbietak** laga digute. 1958ko maiatzaren 2lean ateratako erretratua da, Garagartzako eliza aurrean.
Hauek dira erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara: **Josefa Urain (t), Dorotea Uranga (t)** eta **Jose Urbieta (t).**

# informazioa

## EuskoTren TRENAK

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donostia A.mAKA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
* jaiegunetan 7 45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
jategunetan 8 00etan hasiko dira

## Eusko Tren WTOBt sAK

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07 50 08.50... 21.50

ELGOEBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgothar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jalegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## PES.AUTOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

EIBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.49 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06 60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03 05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23 30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | od.o5 |

Autobusetako informazioa lonzeko deitu Eibarko infonnazio bulegora. TeL 902 101 210.

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 27 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 28 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 29 | Escala | Escala |
| 30 | Bidasolo | Bidasolo |
| 31 | Etxeberria (Sonta Ano kolean) | Etxeberria |
| 1 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 2 | Yudego | Yudego |

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 3 | Bidasolo* | Zabaleta |
| 4 | Bidasolo* | Zabaleta |
| 5 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 6 | Escala | Escala |
| 7 | Bidasolo | Bidasolo |
| 8 | Escala | Escala |
| 9 | Fernandez | Fernandez |

**OKINDEG1A**
28 domekia Eizagirre
1 eguena Fotero
4 domekia Ibarrenea

**FARMAZIAK**
**E5CALA**, Rekoide, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
**FERNANDEZ**, Herriko enp. 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABA1ETA, Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

*euercliko 2ak ade

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**
Anbulatorioa ............ 943 03 26 10
Planning-a ............ 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak ............ 943 74 03 85
D.Y.A (anbulanlzia) ............ 943 46 46 22
Gurutze Gorria ............ 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea ............ 943 03 28 00
Odol Emaileak ............ 943 74 39 36

**GARRAIOAK**
Eusko Trenbideak ............ 902 54 32 10
PESA (Eibar) ............ 902 10 12 10
Taxi geltokia ............ 943 74 08 98

**UDALA**
Euskara Zerbitzua ............ 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua ............ 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ............ 943 74 21 58
Mendaroko Udala ............ 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ............ 943 74 10 08
Udaletxea ............ 943 74 10 50
Udaltzaingoa ............ 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**
Elgoibarko Izarra ............ 943 74 16 26
